# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 4782

*AGINDUA, 2013ko urriaren 17koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia ebazten duena.*

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 46.2.c) artikuluan eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia iragartzen duen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2013ko abuztuaren 19ko Aginduaren laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (2013ko abuztuaren 26ko EHAA, 161. zk.), honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan, «lurralde-ordezkari» izendatzea Ana Isabel Maruri Uriarte; kode-zk.: 511786; destino-osagarria: 29; dotazio-zk.; 5.

Bigarrena.– Izendapen horrek 2013ko urriaren 21etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organoari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 17a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.